

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Amurrioko, Aiarako eta Artziniegako udalerrietan 2025eko ekitaldiko bigarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola

Amurrioko, Aiarako eta Artziniegako udalerrietan 2025eko ekitaldiko bigarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifen kobratze-epeak:

A.) Epe boluntarioa: 2025eko irailaren 18tik azaroaren 17ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2025eko irailaren 18an.

B.) Kobratzeko epe exekutiboa: 2025eko azaroaren 17tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, errekareru exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorri buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2025eko abuztuaren 12a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES